



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko urriaren 29a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztua (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen kidegoan sartzeko adina mugatzeak dakartzan arazoak konpon ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekin negoziazioak abiaraz ditzan Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketa sustatze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizios berrikus ditzan Donejakue bideko autobitari buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez Nafarroako Gobernuak obraren prezioa igotzea onartu zuen eta 19,9 milioi euroko gastua bere gain hartu zuen ematean aurreratzeagatik. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokor bat prestatu eta legebiltzarrean aurkez dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan animalien gorpuen bilketa prozesua administrazioak soilik burutu eta kudeatzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrius ditzan Iruña-Logroño autobiar buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuaren klausulak. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erkidegoan ordezkariak duten sindikatu guztiak kontuan har ditzan bere proposamen, ekintza plan eta elkarrizketa agenda guztietan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak uztail bukaerarako eginak egon daitezen. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proposamena,
Nafarroako Gobernuari eta
lehendakariari buruzko abenduaren
3ko 14/2004 Foru Legea
aldatzeari buruzkoa**

ZIOEN AZALPENA

Foru lege indardunean, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren, lehendakariordeen eta kontseila-

rien ohorezko eta protokolozko eskubideen araubideak, bereziki tratamenduei dagokienak, protokolo arazoak sortzen ditu, pertsona horiek parte hartu behar dutenean nazioko beste agintari batzuek ere esku hartzen duten ekitaldietan, gai honetan Gobernuko kideentzat eta goi karguentzat izan den aldatetaren ondorioz –2005eko martxoaren 7ko EAOn argitaraturiko 516/2005 Aginduaren bidez eginikoa–.

Halaber, foru legearen hizkera, genero berdintasunari dagokionez, egokiagoa izanen litzateke testuan lehendakaritza hitza erabiltzea, lehendakari hitzaren ordez, eta kontseilaritza/k hitza, kontseilaria/k hitzaren ordez.

Hori dela eta, ezinbestez koordinatu beharreko eta guztiek ezagutu beharreko balio eta printzipioei buruz ari garenez, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak 14/2004 Foru Legean ondoko aldatetak egitea proposatzen du:

Aldaketen testua

33.1. artikulua. Nafarroako Gobernuko Lehendakariari jaun/andrea protokolo tratamendu ofiziala dagokio, kargu izenaren ondotik...

37.1. artikulua. Kendu “jaun edo andre txit garaia” gizalegezko tratamendua izanen dute bizi diren artean”.

43. artikulua. Nafarroako Gobernuko kontseilaritza jaun/andrea protokolo tratamendu ofiziala dagokie, kargu izenaren ondotik...

47.1. artikulua. Kendu “jaun edo andre txit garaia” gizalegezko tratamendua izanen dute bizi diren artean”.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eskubide sozialen gutun bat bermatzea, gutxienez bi urtez hemen bizi izan diren herritar guztiei bide emanen diena lana eta oinarritzko errenta izateko, herritartasun eskubide guztiez baliatu ahal izan daitezen.

Eskubide sozialen gutunak herritartasun eskubide unibertsalen berrespenean du abiapuntu, ulerturik eskubide horiek bizimodu duina izan, kultura, etxebizitza, hezkuntza, osasun zerbitzuak

jaso eta gainerako herritarren eskubide berekin gizartean erabat integratzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten guztientzat direla ulertuta.

Une honetan aurrerapausoak ematen ari dira premia duten pertsonen zainketak egoki ematea bermatzen duten eskubideetan, baina egia da, halaber, modu efektiboan aitortu behar dela herritarrek eskubidea dutela guztion artean sortzen dugun aberastasunaren zati batean parte hartzeke, eta aberastasun horrek oinarritzko errenta duin baten bitartez iritsi behar duela premia handiena dutenengana.

Objektiboki, Nafarroako Foru Komunitatearen egoera ekonomikoak aukera ematen dio bere gain hartzeko gaixotasunen batengatik edo ezgaitasunen bat izateagatik, eta saiatu diren arren, lan merkatuan sartzerik izan ez duten pertsonen beharrezkoa duten hobekuntza hori.

Artikulu bakarra. Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 4. artikulua honelaxe geldituko da:

4. artikulua. Zenbatekoa.

1. Oinarritzko errentaren zenbatekoak ondoko dirusarrerak bermatuko ditu: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 100 pertsona bakarra denean, gehi lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 20 bi pertsona direnean, gehi lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 15 hirugarretik aurrerako pertsona bakoitzeko.

Inongo familiak ez du kobratuko oinarritzko errenta moduan lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 150etik gora hilabete bakoitzean

2. Minusbaliotasunagatik oinarritzko errenta baino prestazio txikiagoa jaso eta modu jarraituan lanposturen bat eskuratzerik ez duten pertsonen bermatuko zaie prestazio ekonomiko osagarri bat; prestazio horren zenbatekoa, gutxienez, bien arteko aldeari dagokion kopurua izanen da, lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 100era iritsi arte.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egun berean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko foru lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

Etxebizitza duina lortzea eskubide unibertsalizat hartzen bada ere, hori lortzeko aukera arazo handienetako bat bihurtu da Nafarroako herritar askorentzat, bereziki gazteentzat eta gure gizartean egoera okerreanean dauden sektoreentzat. Etxebizitza librea lortzeko ordaindu behar diren gehiegizko prezioek, lurzoru jabeen eta etxebizitzaren sustatzaileen espekulazioaren erruagatik,

galarazten diete gizarteko sektore ugarietara mota horretako etxebizitzak erostea. Etxebizitza libre bat erostea hautatzen dutenek, nahitaez, beren etorkizun ekonomikoa, bizi baldintzak eta pertsona gisa dagokien garapena hipotekatzen dituzte; izan ere, erositako etxebizitzaren gaineko hipoteka ordaintzera beharturik daude gero eta urte gehiagoan, gaur egun baita 40 eta 50 urtean ere.

Egoera horren aurrean, administrazio publikoetara esku-hartze irmoa eskatu behar zaie arazoa konpontzeko, eta etxebizitza izateko eskubidea bermatzeko etengabe lanean aritzea, erakunde publikoen betebeharra baita. Administrazioek behar adina –ekonomikoak, araugintzakoak, giza baliabideak– dituzte etxebizitzaren merkatuan tinko esku hartzeko, esaterako, babes ofizialeko etxebizitzak kalifikatzeko, sustatzeko eta eraikitzeko ekimenak garatuz; horrela, lehenik eta behin, gizarte-sektore behartsuenek etxebizitza lortzeko aukera izanen lukete, eta zeharka, ekimen horiek etxebizitza librearen prezioaren gaineko espekulazioan eta beharrezko kontrollean eragin en lukete.

Etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko Foru Legeak aurrerapena ekarri zuen, plangintza berrietan etxebizitzaren % 50 babes ofizialekoak izateko konpromisoa hartu zelako, eta 2004tik 2008ra bitarteko epean 13.000 etxebizitza kalifikatzea ere aipatzen zuelako; hori horrela izanik ere, gaur egun argi gelditu da neurri horiek ez direla nahikoa ez etxebizitza beharrean dauden pertsonen eskaera metatuari aurre egiteko, eta, are gehiago, ezta urtero sortzen den eskaerari aurre egiteko ere.

Etxebizitza publikoa esleitzeko azken deialdian agerian gelditu zen eraikitzeko eta esleitzeko erritmoa eskaeraren atzetik doala nabarmen, 10.500 eskabide aurkeztu baitziren. Gaur egun, 8.000 eskabide baino gehiago dira legeak ezarritako baldintzak betetzen dituzten arren, administrazioaren erantzunik gabe daudenak.

Babes ofizialeko etxebizitzak plangintzen bidez kalifikatzeak ez ditu ezartzen etxebizitzak eraikitzeko erritmoak eta, era berean, ez die erantzuten, behar diren epeetan, gizarteak eskatutako beharrei. Administrazioak bere egin behar du etxebizitza babestuen eskaerari erantzuteko premia; hala ere, eskaerari legeak ezarritako gehienezko epe baten barruan erantzuteko ardura onartu behar

du, aurrerapauso kualitatibo bat emanez; hori horrela ez bada, ez-betetze hori zuzenduko duten aldi baterako jarduketak egin beharko ditu.

Nafarroa Bairen iritiz, Nafarroak eskura ditu beharrezkoak diren baliabideak etxebizitza izateko eskubidea betetzearen arloan aitzindaria izateko, eta lege baten bidez, aipatu eskubidea gehienez bost urteko epean bermatzeko betebeharra hartzeko. Betebehar horren bermea eskubide hori betetzeko dagoen borondate politikoaren menpe dago; horretarako, botere publikoek esku-hartze handiagoa izan behar dute babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikatzean, lurzoru-eskurapenean, sustatzean, eraikitzean eta esleitzea; betiere, behar hori duten Nafarroako herritarrek eskatzen duten erritmoaren arabera.

Lehenengo xedapen gehigarria. Nafarroako herritarrei etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa, horretarako eskubide unibertsalari lotua, aitortzen zaie.

Nafarroako Gobernuari dagokio, beharrezkoak irizitako ekintzen bidez, gehienez ere bost urteko epean eskubide horri aldeko erantzuna emanen zaiola bermatzea; epe hori zenbatzen hasiko da etxebizitzaren eskaria legean ezarritako moduan formalki erregistratzen den unetik.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak, zuzenean edo toki entitateekin elkarlanean, babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazioa,

sustapena, eraikuntza eta esleipena bermatuko ditu, hala jabetzakoak nola alokairukoak. Sustapena modu iraunkorrean egingen da eta egin behar den etxebizitza kopuruak bermatu beharko du lege honetan eta bere garapenean ezarritako baldintzak betetzen dituzten Nafarroako herritarrek etxebizitza babestua eska dezaketela.

Etxebizitza izateko eskubidea bete ahalko da hala jabetzan nola alokairuan. Etxebizitza jabetzan izateko eskaera betetzerik ez dagoenean baina bai alokairuan, alokairu horrek erosteko aukera eskaini ahalko du, bost urteko epean, eta xede horretarako ezarritako etekin eta hobariekin.

Nafarroako Gobernuak ez bada gauza erantzuna emateko etxebizitza babestua lortzeko egin diren eskabideei, ezarritako baldintzak betetzen dituztenei, Gobernuak eskatzailearen eskura jarri beharko du alokairuko etxebizitza bat; gainera, alokairuaren prezioa ez da inolaz ere eskatzailearen dirusarrera garbier % 30 baino handiagoa izanen.

Nafarroako Gobernuak etxebizitza izateko eskubide subjektiboa betetzen ez badu, zergadunak ez ditu jasotako hobari fiskalak itzuli beharko "etxebizitzarako kontua" izeneko kontuetarako ezarritako gehienezko epea betetakoan; horretaz gain, zergadunak aukera izanen du "etxebizitza kontua" mantentzeko, eskaerari erantzuna eman arte, edo banku-kontu hori ixteko.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen kidegoan sartzeko adina mugatzeak dakartzan arazoak konpon ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: "Nafarroako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen kidegoan sartzeko adina mugatzeak dakartzan arazoak konpon ditzan."

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 192., 193. eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida dadin, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernua premiatzen baita suhiltzaileen kidegoan sartzeko adina mugatzeak dakartzan arazoak konpon ditzan.

Zioen azalpena

Suhiltzaileen postuetara sartzeko adina dela-eta erregelamendu bidez ezarritako mugak sortzen duen egoera aztertu dugu.

Kontuan hartu behar da Nafarroako Gobernuak Parlamentuari ez dizkiola kendu behar legegintzaren arloan dauzkan eskumenak.

Ukitutakoei kalteak saihestu nahi dizkiegu; bestetik, botere publikoen jardueretan legezkontasun printzipioak errespetatu behar dira; eta, azkenik, Nafarroako arartekoak eginiko gomendioei kasu egin behar zaie.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren osoko bilkuran izapidetzeko:

Lehena.- Nafarroako Gobernuari exijitzea zeresana duen departamentuak ez dezan adin-muga hori aplikatu suhiltzaileen kidegoan suhiltzaile berriak sartzeko erregelamenduan.

Bigarrena.- Nafarroako Gobernua premiatzea 2 hileko epean lege mailako arau bat aurkez dezan erreserbari datxekion betebeharrak betetzeko, eta gaur egun indarra duen baldintzarik gabeko igorpena kentzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekin negoziazioak abiaraz ditzan Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsoneri buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketa sustatze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekin negoziazioak abiaraz ditzan Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsoneri buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketa sustatze aldera."

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu diote Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioak

Nafarroako Parlamentuak erabaki zuen konstituziokontraotasun-errekurtsoa aurkeztea Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Estatuko Legeko zenbait artikuluren aurka, besteak beste ondoko txostenak aztertu eta eztabaida politikoa egin ondoren:

– Nafarroako Kontseiluaren irizpena (martxoaren 21eko 13/2007 txostena).

– Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko idazkaritza teknikoaren txosten juridikoa.

Jakina da, era berean, Nafarroako Gobernuaren zerbitzu juridiko zentralek txosten bat egin zutela. Gobernuak, halaber, erabaki zuen aldi berean errekurtso bat jartzea, zeren eta txosten hori antzeko ondorioetara iristen baitzen.

Begi-bistakoa da proposatutako bi gaien munta eta etorkizunean izanen duten garrantzia. PSNk berak, garai hartan eledun zuen Puras jaunaren bidez, Nafarroako Kontseiluari txostena galdetzea eskatu zuen, eta hala egin zen, bertan ageri den emaitzarekin.

Gure eskumenak eta gure gaitasun ekonomikoa aldezte, hau da, "el fuero y el huevo" aldezte gaztelaniaz esan ohi denez, helegitea kendu aurretik egin beharreko zerbait da, elkarrizketa instituzionalaren eta elkar ulertzearen bidez hain zuzen.

Gizarteak ezin izanen luke ulertu hain gai sentiberazkoan, arranditsuki "gizarte ongizateko zerbitzuen laugarren prestazioa" deitu izan den horretan, helegitea jartzea bezain erabaki larria beharrezko zorrotasunarekin egin ez izana eta helegiteari eusteko beharrezko baldintzarik gabe egin izana, eta gure etorkizunerako garrantzitsuenak diren bi gaiak –eskumena eta finantzaketa– eragiten ez dieten argudioekin orain atzera egi- tea.

Nafarroako herritarrak dira eskatzen dutenak, gizarte ongizateko prestazioen onuradunak beraiek direnez, gai honetan zorrotasunez eta koherentziaz jokatu den bermea; eta ez da hala jokatu baldin eta helegitean atzera egiten bada beharrezko bermeak alde aurretik lortu gabe.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Gobernuarekin negoziazioak abiaraz ditzan Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsoneri buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketa sustatze aldera eta, Auzitegi Konstituzionalean aurkeztutako helegitea kendu aurretik, honakoak bermatze aldera:

1.- Nafarroari konpentsatuko zaiola, Hitzarmen Ekonomikoaren bidez, Menpekotasunaren Legean

ezarritako politikak gauzatzeko gizarte ongizatean eta menpekotasunari aurre egiteko laguntzaren arloan egin beharreko inbertsioagatik.

2.- Lege-erreserba bat eginen dela Nafarroari aitortuz dituen eskumenak gizarte ongizatearen

eta menpekotasunari aurre egiteko laguntzaren arloan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Donejakue bideko autobiarri buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez Nafarroako Gobernuak obraren prezioa igotzea onartu zuen eta 19,9 milioi euroko gastua bere gain hartu zuen ematean aurreratzeagatik.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: "Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Donejakue bideko autobiarri buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez Nafarroako Gobernuak obraren prezioa igotzea onartu zuen eta 19,9 milioi euroko gastua bere gain hartu zuen ematean aurreratzeagatik".

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak

Nafarroako Parlamentuaren Ekonomia Batzordearen 2007ko urriaren 16ko bilkuran, zeinean

Comptos Ganberako lehendakariak agerraldia egin baitzuen "Donejakue bideko autobiarren, Nafarroako ubidearen eremu ureztagarrien eta funtzionarioen montepioaren ondoriozko etorkizuneko gastuei buruzko fiskalizazio txostena" azaltzeko, Comptos Ganberako auditorea eta lehendakaria "Bideko Autobideko" obrako prezioa berrikustearen aurka eta obra lehenago bukatzeagatik aitorturiko aldaketaren aurka azaldu ziren. Parlamentu-talde honek galdetu zuen zein aukera egonen lirakekeen une honetan okerrak zuzentzeko, eta Comptos Ganberako arduradun juridikoak adierazi zuen administrazioak bere kabuz administrazio-egintzak berrikustea izanen litzatekeela behar ez bezala ordaindutako funtsak berreskuratzeko formula.

Hori guztia dela eta, parlamentu-talde hau ados dagoenez Comptos Ganberak egindako gogoetekin eta beharrezko justifikaziorik gabe emandako milioika euroak berreskuratzeko planteaturiko formularekin, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Comptos Ganberako txostena kontuan har dezan eta bere kabuz berrikus ditzan Nafarroako Gobernuak obraren prezioaren igoera onartzeko eta Bideko Autobidea ize-nekoa behar baino lehenago eskuratzearen ondorioz 19,9 milioi euroko gastua ordaintzeko egin zituen administrazio-egintzak.

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokor bat prestatu eta legebiltzarrean aurkez dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: "Nafarroako Gobernua premiatzen da erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokor bat prestatu eta legebiltzarrean aurkez dezan".

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, Foru Komunitatean erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko eta bultzatzeko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena:

Erantzukizun sozial korporatiboa gaur egun enpresak bere gain hartu behar duen beharizan berri bat da, XXI. mendeko gizartean duen eginkizunari dagokion zilegitasuna lortu nahi badu.

Enpresak enpatia handiagoa bilatu behar du bere interes-taldeekin: akziodun, bezero, langile eta dagokion komunitatearekin berarekin; izan ere, horiek guztiak daude interesaturik ingurumenaren defentsan, giza eskubideetan eta garapen pertsonal eta profesionalean, baita garapen sozial eta ekonomikoan ere.

Nafarroako enpresa kopuru garrantzitsu bat Nafarroan erantzukizun sozial korporatiboaren mugimendu orokor bat sustatzeko eta abiarazteko ekimen eta estrategia ugari garatzen ari bada ere, komenigarria da botere publikoek erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko jarduerak abian jartzea. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokor bat prestatu eta legebiltzarrean aurkez dezan, bertan aztertu eta eztabaidatzeko. Programa hori Nafarroako Foru Komunitatean egoitza duten edo bertan aritzen diren enpresentzat izanen da eta pizgarriak ezarriko ditu, gutxienez, erantzukizun sozial korporatiboarekin konpromisoa hartzen duten enpresentzat. Halaber, arlo horretako berriazko jarduerak koordinatzeko eta abian jartzeko protokolo bat jasoko du.

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan animalien gorpuen bilketa prozesua administrazioak soilik burutu eta kudeatzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan animalien gorpuen bilketa prozesua administrazioak soilik burutu eta kudeatzeko".

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak:

Nafarroako abeltzaintza sektorearen egoera kritikoa da. Izan ere, arrisku handia dago abeltzaintzaren jarduerari gure erkidegoan ezin eusteko.

Produktzio kostuetan, pentsuetan, azpiegituretan, neurri sanitarioetan, ustiatze kostuetan eta abarretan izan den igoera geldiezin eta justifikaezinak ez du berarekin ekarri jatorrian haragia saltzeko prezioak ere igotzea; aitzitik, jatorrian egiten

den salmentako prezioetan beherakada bat gertatu da aurreko urteetako prezioen aldean.

Abeltzaintza sektorea desagertzeak berarekin ekarriko luke Nafarroak bere nortasunaren zati handi bat galtzea, eta, horrekin, gure landa eremuak biztanlerik gabe geratuko liriateke, herriak abandonatuko liriateke eta, halaber, jarduera hori garatu izan deneko lurraldeetako ingurumenaren oreka kalteturik aterako litzateke. Aldi berean, abeltzaintza-jardueraren galerak berarekin ekarriko luke merkatu globalen eskuetan uztea gure gizartearen kontsumorako oso garrantzitsua den arloa, alegia, haragiaren produktzioa. Eta merkatu global horietan, aukera gutxi dago guk eragina izateko eta erabakitzeko.

Beharrezkoa da zenbait ekimen planteatzea, partzialak izan arren, Nafarroako abeltzaintzaren ustiatze-baldintzak hobetzeko balioko dutenak eta abeltzaintzaren egoera larria arintzea bideratuko dutenak.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan abereen gorpuak biltzeko prozesua administrazioak egin eta kudea dezan guztiz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan Nafarroako granja eta abeltzaintza-ustiatzietako gorpuak biltzeko prozesua doakoa izan dadin Nafarroako abeltzaintzat.

Iruñean, 2007ko urriaren 18an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Iruña-Logroño autobiar buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitze, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuen klausulak.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: "Nafarroako Gobernua premiatzen da, Comptos Ganberaren txostena kontuan hartuta, ofizioz berrikus ditzan Iruña-Logroño autobiar buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitze, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuen klausulak"

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Parlamentu honetako Ekonomia Batzordean berriki eginiko agerraldian, Comptos Ganberako lehendakariak agerian utzi zuen ez dagoela ados A-12 autobiarren (Bideko Autobia) lanak egiten ari ziren bitartean Nafarroako Gobernuak onetsiriko bi aldaketekin. Kontuen epaitegi horrek emandako txostenak aditzera ematen du bai prezioen berrikuspena, 35 milioi eurokoa, bai obrak aurreikusitako data baino sei hilabete lehenago bukatzeagatiko ordaina, 19,9 milioi euroko kopuruan ezarri dena, emakida-hartzailearen ekimenez egin zirela.

Ez kasu batean ez bestean, ez zen beharrezkoa baldintza orriak aldatzea, prezioen berrikuspen ofiziala berariaz baztertua baitzegoen, eskaintzarekin batera datorren plan finantzarioan batetik prezioen berrikuspenaren estimazio bat eta bestetik tarifak KPlaren arabera gaurkotzeko aukera

aurreikusi zirelako. Eta aldi berean, aurrerapenez obra bukatzeagatiko ordainak berarekin dakar, aurreikusita ez baitzegoen, ezarrita ez dagoen kalte-ordain kontzeptu berri bat sartzea; eta horrek ez du inongo zentzurik, zeren eta emakida bidezko kontratu baten aurrean gaudenez —eta ez obra kontratu baten aurrean— emakida-hartzailea den enpresa hasiko baita dagokion kanona kobratzen obra bukatu eta ondoren. Aztergai dugun kasuan, gainera, obra aurreratzeak emakida-hartzaileari gastu handiagoa ekarri izanaren konstantziarik ez dago.

Halaber, onetsitako bi aldaketek obraren kanoa handitzea dakarte; izan ere, aldaketa guztiekin batera % 40,2 igo da guztira.

Azken batean, Nafarroako Gobernuak erabakitako aldaketengatiko administrazio-egintzak Nafarroako Gobernuaren beraren kudeaketa txar eta jarduera okerraren ondorioa dira, eta emakida-hartzailearentzako onura handiagoa baizik ez dira. Hori dela eta, haiek berrikusteko eta, horrenbestez, Foru Ogasunaren etorkizunarentzat dakartzan konpromiso finantzarioetatik -zeinek ondorio logiko bat baitute Nafarroako herritarrek hurrengo hamarkadetan jasan beharko duten zerga-zamankatzeko eskatzen da. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ofizioz berrikus ditzan Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko kontratuen klausulak obra eraikitzen ari zelarik aldatu zituzten administrazio egintzak; horrela, jarduketak kontratuen hasierako unera eramane beharko lirateke, eta gutxitu egin beharko lirateke, ondorioz, kopuru eta konpromiso finantzarioak, eta proportzionalki gutxitu, era berean, kanonaren zenbatekoa.

Iruñean, 2007ko urriaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da erkidegoan ordezkariak duten sindikatu guztiak kontuan har ditzan bere proposamen, ekintza plan eta elkarrizketa agenda guztietan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da erkidegoan ordezkariak duten sindikatu guztiak kontuan har ditzan bere proposamen, ekintza plan eta elkarrizketa agenda guztietan".

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, eta 2007ko urriaren 10eko Osoko Bilkuran jabeldura bat eztabaidatu ondoren, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena:

2007ko urriaren 10ean jabeldura bat eztabaidatu zen, Nafarroako Gobernuari aurkeztua, azaldu eta argitu zezan zein zen bere jarrera gaur egungo egoera dela-eta, zeinean Nafarroako sindikatuetatik zati handi bat baztertuta utzi baita Nafarroako Gobernutik sustaturiko zenbait kontseilu eta akordiotatik.

Eztabaida horretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak berriro ere iragarri zuen bere asmoa zela adostasun- eta lan-politikak soil-soilik UGT, CCOO eta CENekin egiten segitzeko sustapen-lanean aritzea. Horrek esan nahi duena da hasieratik bertatik baztertzeko dela ordezkariak duten sindikalaren % 34,89rekin bat egin eta lankidetzan aritzea.

Parlamentu-talde honen iritziz, beharrezkoa da gobernu eta erakunde guztientzat funtsezko helburua izatea organo, kontseilu eta ekintza planean integratzea haietan ukitutako eragile guztiak; hori dela eta, ez dator bat elkarrizketa eta akordio sindikalak soilik CCOO eta UGT sindikatuarekin egiteko nahiarekin.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du erkidegoan ordezkariak duten sindikatu guztiak kontuan har ditzan bere proposamen, ekintza-plan eta elkarrizketa-agendetan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak uztail bukaerarako eginak egon daitezen.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak uztail bukaerarako eginak egon daitezen?"

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko araudiaren 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Urtero ari da gertatzen, ez da berria: ikasturtea hasi eta hainbat eta hainbat ikastetxek irakasle

falta pairatzen dute. 2007ko urriaren 15ean zenbait ikastetxetan irakasleak falta dira (Sanduzelai I.P., Ega BHI, Basoko BHI, Irurtzun IP, Toki Ona BHI, eta abar). Gainera zenbait ikastetxetan gaixorik dauden irakasleen baja medikoak ez dira betetzen ari.

Hezkuntza Departamentuak ez du behar bezala antolatzen eta aurreikusten ikasturte hasiera. Behin-behineko irakasleen kontratazioa hagitik baldintza kaxkarretan ari da burutzen azken urte hauetan.

Arestian aipaturikoa kontuan hartuta, honako erabaki proposamena aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak uztail bukaerarako eginak egon daitezen.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Departamentuan egin beharreko behin-behineko irakasleen lan-kontratuak esleitzeko ekitaldia era moderno, berritzaile, argi eta ulergarrian egin dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 18an

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	